

## **Bilboren historiari buruzko sinposioa, bihar Bidebarrietan**

BILBAO. Eusko Ikaskuntzak eta Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak Bilboko Historiari buruzko XV. Sinposioa antolatu dute bihar eta asteazkenean, maiatzak 4rako. Bilbo: hirigunea, zabalkundeak eta mugak izenburupean, hiriaren muga geografikoen eta gizarte-eremuen bilakaera aztertuko da, XIX. mendearen lehen urteetatik gaur arte. Hitzordua Bidebarrieta liburutegiko ekitaldi aretoan izango da, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, antolatzaileek adierazi dutenez.

Inaugurazio ekitaldian, Ibone Bengoetxea Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza zinegotziak eta Marta Ajuria Eusko Ikaskuntzaren Bizkaiko presidenteordeak hartuko dute parte. Bertan egongo da baita jatorri errusiarra duen Nieves Basurto ikerlari, irakasle eta Artearen Historiako doktorea. Basurtok hasiko du sinposioa, A la conquista del espacio. Documentación sobre el contencioso para la anexión a Bilbao de las anteiglesias vecinas (1821 - 1890) hitzaldiarekin.

Bilboren fundazio agirian, Bilboren zenbait muga jurisdikzional ezarri ziren. Hala ere, hiri baten espazioa ezin daiteke muga juridiko batera mugatu. Espazioa hiriko biztanleek eraikitzen eta lantzen dute. Bilbo portua izan zen hiri izan baino lehen, eta itsasadarretik itsaso barrura ere, zenbait espazio eratu ziren. Horrez gain, sortu zen unetik, zenbait espazio sozial bereiztu ziren gizartearen barruan. Gaur egun, Bilboko espazioen proiektuak eta erabilerak gogoeta eta eztabaida iturri dira.

Gai horiek dira Bilboko Historiari buruzko XV. Sinposioari hasiera emango diotenak. Bertan, argitaratu gabeko jatorrizko 21 azterlan aurkeztuko dira, eta ondoren, eztabaida eta azterketa-saioak izango dira. Abandoko, Deustuko eta Begoñako baselizen anexio prozesuak, Albia konkistatzeko borrokak, Bilbo Handiaren eraketa frankismoaren garaian izango dira, besteak beste, hitzaldietako ba-tzuen gaiak.